

FUNTSEZKO JARDUERAK

Ekoizpena: Gure proiektuak funtziona dezan ekoizpenak aurrera joan behar du, funtsezkoa da jarduera honek funtzionatzea. Ekoizpena ondo funtzionatzea, behar dena produzitzea da; hau da, ezin dituzu aterki pila produzitu gero ez badituzu salduko, orduan, ekoizpena kontrolatu behar da. Bestalde makinak egoera onean egotea garrantzitsua da, arazorik ez izateko eta ekoizpena ez geldiarazteko. Azkenik, produktu bukatuak lehen bailen saldu beha dira, bestela biltokian pilatuko dira eta horrela ere ekoizpena geldiarazi dezake.

Arazoak konpontzea: Funtsezkoa da arazorik ez egotea kideen artean, eta egoten badira, normala dela, azkar konpontzea komeni da, bestela lan giroa txarra da, eta hori enpresaren aspektu negatibo handi bat izango litzake. Bestalde bezeroekin arazoak edukitzeak ekiditeko gauza bat da, bezeroak edozer gauza egin dezake zure enpresa pikutara botatzeko. Azkenik txarrena da hornitzaileekin arazoak edukitzea, produktua egiteko lehengailak behar dituzu, eta zaila da hornitzaile apropos bat aurkitzea.

Plataforma edo sareko jarduerak: Gure proiektua publikoki azaltzeko modu aproposena sare sozialen bidez eta web guneen bidez azalera da. Gaur egun jende guztia mugitzen da interneten eta garrantzitsua da jendeak laguntzea, soilik gure kontua partekatzen, horregatik funtsezkoa da interneten fama edukitzea.